

Gure Chokhoa (1907)



Piarres Charritton*

XX. mende hastapenean Frantziako estatuaren eta elizaren arteko gatazkarengatik, Baionako seminarioa, besteak beste, estatuak lapurtu ziolarik elizari, apezgaiak joan behar izan ziren Biarnoko Nay herrira 1907an eta han gelditu, 13 urtez, 1920ean Baionako apezgaitegi berria ireki arte. Eta beren desterrura heldu orduko, hor zeuden 50 bat apezgai euskaldunetarik zenbaitek asmatu zuten beren arteko astekari euskaldun bat argitaratzea, 1907ko otsail hastapenetik hara agertzen hasi zena. "Gure Chokhoa" deitu zuten aldizkari horren lehen bost aleak aurkitu ditu Julio de Urquijo liburutegian, Donostian, Beñat Oihartzabal gure euskaltzainkideak eta horren aurkezpen labor bat egiten dut hemen, erranez nor ziren apezgai haiek, nor kazetagiak, zertaz ziharduten, bainan ezin asmatuz zergatik ixildu ziren edo ixilarazi zituzten.

Giltz-Hitzak: Baionako eliza. Frantses estatua. Euskaldun gazteak. XX. mende hastapena.

Par suite de la querelle de l'Eglise et de l'Etat au début du XXème siècle en France, l'occupation par l'État du séminaire de Bayonne contraignit les séminaristes à se réfugier, en 1907, à Nay de Béarn, où ils résideront pendant treize ans, jusqu'à l'ouverture du nouveau séminaire de Bayonne, en 1920. Dès leur arrivée en terre d'exil, quelques uns des 50 séminaristes basques, décidèrent de créer un bulletin interne hebdomadaire en langue basque, intitulé "Gure Chokhoa" qui commença à paraître dès la première semaine de février. Récemment Bernard Oihartzabal de l'Académie de la Langue Basque a découvert dans la bibliothèque Julio de Urquijo de Saint-Sébastien la collection des cinq premiers numéros de "Gure Chokhoa". C'est à une brève présentation de cette revue que je m'attache ici, en essayant de voir qui étaient parmi les 50 séminaristes basques de 1907 les rédacteurs de l'hebdomadaire, quels étaient les sujets traités, sans toutefois pouvoir répondre à la question, quand et pourquoi la publication s'est arrêtée.

Mots Clés: Eglise de Bayonne. République Française. Jeunesse Basque. Début XXème siècle.

Al principio del siglo XX los seminaristas de Bayona tuvieron que abandonar el seminario ocupado por orden del prefecto, según las nuevas leyes de Separación de la Iglesia y del Estado en Francia, y refugiarse en la ciudad de Nay de Bearn en 1907. Inmediatamente unos de los cincuenta seminaristas vascos refugiados decidieron crear un boletín interno hebdomadario, llamado "Gure Chokhoa" cuyo primer ejemplar se publicó, al principio de febrero de 1907. Por suerte, recientemente el académico Beñat Oihartzabal descubrió en el fondo Julio de Urquijo de San Sebastián, la colección de los 5 primeros números de la revista. Por mi parte he hecho una breve presentación de esos números: quienes eran de entre los 50 seminaristas vascos los redactores de la publicación, los temas tratados, no pudiendo sin embargo responder a la cuestión, cuando y por que se suspendió la revista.

Palabras Clave: Iglesia de Baiona. República Francesa. Juventud Vasca. Principios del siglo XX.

* Impasse Port-Neuf, 3. F-64100 Baiona

Eugene Goyheneche adiskide zenaren omenaldiko aztergai bat ene alo-rean, hots euskal literaturaren sailean, asmatzera nindoalarik, gure ehiztari kofradiako Beñat Oyharzabalek erakutsi dit Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Julio Urkixoren liburutegian eskuratu berri zuen altxor ezezaguna: 1907an, Baionako diosesiko apezgai euskaldunek Biarnoko beren desterruan, Nay-eko hirian, elgarrekin elgarrentzat argitaratu zuten “Gure Chokhoa” astekariaren lehen bost aleen sorta.

“Hori zuretzat da” Beñatek erran orduko, mende honen hastapeneko historia zenbait gogoratu zaizkit, bai eta ere, guhaur seminarioan ginelarik, 1940 irian, euskaldun apezgaien artean zebilen kahier bat, non bakoitzak nahi zuena idaztea zilegi baitzen, euskaraz egina zen ber, edo oraino hobeki, urte haietan beretan, zenbait hilabetez, buruzagiengatik jakingabeen, atera genituen bigarren *Aintzina* hilabetekariaren lehen bospasei ale haiek.

Bi hitzez oroitaraz dezagun beraz, mende honen hastapenean, Frantziako gobernuak gerla gorria egiten ziolarik eliza katolikoari, bai eta ber denboran herri kulturari, frantsesaz beste hizkuntzetan katiximak eta predikuak egitea debekaterainokoa eta eskoletarik, komentuetarik, apezetxetarik apez fraile eta serorak kanporatuz, Baionako diosesiak, apezpikurik gabe egonik lau bat urtez, apezpiku berri bat, Gieure landestarra, 1906an izan zuela, berehala bere apezpikutegitik kanpo ezarria izan zena, haren apezgaiak Larresoroko eta Baionako seminariotik kanpo emanak ziren bezala. Eta horra nola, 1907an, Larresoroko apezgaiak, Abbadie beren buruzagiarekin eta irakasleekin, Beneditarretarik hustu berri zuten Belokera joan ziren eta Baionako apezgai zaharragoak berriz Baionako Nay herrirat. Han egon baitziren hamahiru urtez, 1920ean Baionako seminario berria eraiki arte.

Apezgaien erdiak nonbait han euskaldunak zitezkeen eta hauen artean zen agertu, 1907ko otsailaren 2an, “*Gure Chokhoa*” euskarazko astekariaren lehen alea, euskaldun apezgaien eskutan eskutik eskura ibiltzeko xedetan.

Lehenaren ondotik baditugu eskutan beste lau ale: hiru otsailekoak eta azkena martxoaren 2koa. Besterik izan ote zen ez dakigu: are gutiago ea kazetariak ziren lotsatu ala debekatu zitzaizen jarraitzea? Dena dela, ustegabetarik eskutan ditugun bost ale horiek berak lagungarri dira gure historia ez hain zaharraren bazter bat edo beste argitzeko. Lehen aletik beretik jakin dezakegu, alabaina nortsu ziren euskaldun kazetari horiek bai eta, berek diotenaz zertako eta zertaz nahi zuten horrela hitzegin.

EGILEAK

Nortsu ziren aldikariaren egileak erran dugu, zeren eta apez eta apezgaien artean aspaldian barna sartua den ohitura txar baten arabera, izenorde baten atzetik bilatu behar baita, maizenik, idazlearen deitura legezkoa. Hemengo izenordeak hauek dira: *Piarreño*, *Manechun*, *Begnat*, *Patchiku*, *Azkaindarra*, *Pedrillo*, *Charles*, *Kukullero* edo *Agustin*, *Nor-nahi*.

Izenorde horietarik bat bakarrik dugu ezagutu errazki: hau da *Azkaindarr*-rena, Jean Elissalde Zerbitzari euskaltzain zenak hori bera erabili baitzuen 1920ean, Baionan, argitaratu zuelarik “Kantu Berria” liburuttoa, baina ez dut uste hor sartu zituela, beharrik, hemen ditugun “Sartu Komentuan” eta “Lestelle”-n.

Dena dela, ez dugu dudarik, Jean Elissalde-Zerbitzari, 1883an Azkainen sortua, 1909an Nay-en apeztua, Uztaritzen bikario egona, 1926an Liginagan erretor eta 1932an Gereziatan erretor izana, 1961an herri horretan hil eta ehortzi arte, izan zela 1907ko astekariaren arduradunetarik bat.

Eta besteak nor ote ziren? Aldizkariaren lehen bi aletan 47 izen eta deitura agertzen dira, ez baita guti. Zein dira bada izen horiek?

5 izen badira guretzat ezezagunak: Badiola, Diharce, Harguindeguy, Istilart eta Jaureguy; menturaz gazte horiek apeztu gabe atera zirelako, ez dute hatzik urtzi André Ouret artxibazainak aurkitu dituen apezpikutegiko paperetan.

Gainerako 42etarik, 2 gerlan hil ziren: Alexandre Manque, Ainhoarra 1908an apeztua eta Ortesen irakasle egonik, 1915ean hila eta Dominique Charo Atharrazarra, 1913an apeztua eta Tolosan ikasten egonik, 1914ean hila.

Beste 2 joan ziren “Arrotz Herrietako Misionest”-etara: Jean Chabagno Aldudarra, 1910eko “Buruxkak” liburu ezagunaren “Misionestaren ezteiak” kapituluan Jean Etcheparek aipatzen duena eta gero Japonian ibili ondoan, Parisera eta euskal herrira itzulirik euskal lanetan parte hartzen ikusi duguna, 1975ean zendu arte, eta Jean Larregain Senperrarra, Yunnan-eko apezpiku egin zutelarik, 1939eko gerla aitzin, Senperen euskaraz predikatzeke lotsarik ez zuena, baina, zorigaitzez, 1942an, laster hil zena.

Hazparneko herritar edo herriko apez gisa ezagutu ditugu oraino guti-edo aski: Martin Lissarague, Ttattilateiko semea, Mehaineko apez zena (+1932); Gratien Bordarrampé, Xapatako semea, Uharte Garaziko erretor luzaz egona (+1962); Martin Hiriart-Urruty, Latsaldeko semea, Garroko ikastetxeko buruzagi izana (+1946); Pierre Harosteguy, Hazparneko bikario egonik, Biriatuko erretor zelarik hila (+1938); Jean Baptiste Mendivil, Bezkoiztarra, gerla ondoren Hazparnera erretiraturik eta parropiako zinemaren sortzaile izanik, zendua (+1938).

Uztaritzeko apezgaitegian ginelarik ezagutu dugu ere, Bernard Bidondo, Donaistiko semea, euskal idazle pollita, 1936an Jutsiko erretor izendatu zutena (+1947) eta berezik Pierre Lassalle Bezkoitzeko semea, bizi guzira irakasle eramana, kazetari ona eta Piarres Lafitten lankide bipila izana (+1960).

Geroago eliza lanetan guhaur abiatu garelarik, 1907ko apezgaietarik zenbait aurkitu ditugu beren parrochia edo apeztxetan, ordukotz aski zohituak baitziren, eta beti haienganik zerbaiten ikasten saiatu izan gara. Hala nola, Leon Aguerre, Lukuze Kattilaneko semea, Miarritzeko apeznausi zelarik,

1942an urte batez parropiako eskolan zerbitzatu nuen, eta gero, gogoan dut, 1963ean, Baionako katedraleko kalonje zelarik, bere haurreko amikuztar nekazari sukarrak harturik, laborantzako liburu eder bat, Makea Etxepareko nagusiarekin probatu zuela eta aita Gachitegi Belokeko injeniurrarekin argitaratu. Adin ederrean joan zen 1970ean.

Gazten arduradun bezala kurutzatu ditut ere: Michel Arricar kalonjea, Sarrikotako semea, Atharratzeko apeznausi zendua (+1962); Dominique Doyhenart, Getariarra, Lehuntzako erretor egon ondoan erretiratu (+1960); Justin Lacaberats, Martxutarra, Behaskaneko erretor zendua (+1962); Felix Heguy kalonjea, Arrosatarra, Iholdiko apeznausi zelarik hila (+1973); Jean Athor, Landibartarra, Heletako erretor luzaz egona (+1975); Noel Massondo, Ilharreko semea, Martxutako apez higatua (+1974); Jean Baptiste Verdun kalonjea, Baionako seme euskalduna, Kanboko erretor luzaz egonik zendua (+1963); Jean Crouspeyre kalonjea, Baigorriarra, Ortesen irakaskuntzan higiturik, Izpurako xahar-etxean egon-eta zendua (+1960).

Beste asko ordea ez ditut entzutez baizik ezagutu, hala nola, anitz aipu ziren: Laurent Apesteguy, Donazarrekoa, predikari eta idazle gazterik hila (+1928); Jean Ithurbide, Ahatsakoa, Mauleko ikastegiko buruzagi zelarik bapatean zendua (+1944); Augustin Erdozaincy, Larzabaleko semea, luzaz irakasle egonik Hazparnen eta Paben, Espeizeko apez hila (+1945); Jean Etcheverry, Eiheralartarra, Santagraziko apez egonik, Arrosako erretor izendatu zutelarik istripuz hila (+1954); Jean Lohiague, Lekuindarra, musikari fina eta Ahurtiko komentuan egon ondoan, Bastidako apeznausi zendua (+1951); Jean Baptiste Donetch, Uztariztarra, Arnegiko apeza, Garazitik Iruñeraino guziz aipatua izana (+1961); eta beste horrelako hamar hamabi izen baditugu “Gure Chokhoan” agertzen direnak, baina arrotzak guretzat, ez izenez, baina izaitzez, hala nola: Bidart, Carrère, Carricart, Dachaguer, Daulier, Lagarde, Laplume, Mendiondo, Paramina, Passicot, Pilyo edo beste.

Dena den badut susmoa, gure aldizakariaren orrialde guztiak irakurri ondoan, bai eta horko izenorde eta izen deitura guztiak kurritu-eta, jadanik bereizi dugun Jean Elissalde Azkaindarraren aldean sar ditzakegula oraino beste bispalau lagun bederen.

Nahiz ez dugun froga zehatzik, *Piarreño* sinatzen duen arduradun nagusia, Pierre Lassalle, gure irakasle zena eta, besteak beste, “Gure Herria”-ren edo “La Presse” egunkariaren lankidea daiteke; “Gure Chokhoa”-n idatzi politika artikuluek bereziki, Bezkoiztar kazetariak idatzien itxura baitute.

Begnat, banago ez ote zen Bernard Bidondo, Uztaritzeko irakasle izana, hau ere. Agustín Erdozaintzi, Larzabaldarra, Espeizeko apez zendua, ordea, *Agustin* sinatzen zuen kazetaria bera zela iduritu zait. *Kukullero* ziberotarra aldiz, Dominique Charo, Atharratzekoa, zitekeen, hura gerlan hil zelarik gorai-patu baitzuen aita Pierra Lhandek.

Manechun, ordea, ez dakit zuzen noren kondu ezar, *Manex* izeneko asko baitira gure zerrendan, guztiak euskal idazle goiztiarrak izan zitezkeenak:

Manex Ithurbide, Manex Athor, Manex Chabagno, Manex Lohiague, Manex Crouspeyre, beste Jean edo Jean Baptiste legezko guzien artetik.

Horra beraz “Gure Chokhoa”-ren egileez erran dezakegun apurra.

ZERTAKO KAZETA BERRIA

Zertako egin zuten beren euskal astekaria 1907ko apezgai euskaldunek, hori bai, aski ongi ikusten dugu; lehen alean berean, “Zertako” titulupean, *Manechun* delako batek erraiten baitu: “Euskal Herritik urrunduz geroz euskaldun apezgaiek ez dute gehiago ikusten sorterriaren itxurarik, ez entzuten herriko soinuirik, ez mintzairarik. Ez dute bada beren euskara maitea ahantzi nahi “Gure Chokhoa”-ri esker, herrirat itzuliko direnean, erraiten ahalko dute beti euskaldun garbi egon direla”.

Erran genezake beraz herrimina dela nolazpait euskal astekariaren sorzaileen lehen arrangura.

Arrangura bera nabari da alabaina, ale bakoitzeko lehen orrialdean ageri den Euskal Herriko herri irudi apaingarrian, eta honen azpian errepikatuz ohi datorren bertsoan:

“Gure arraza baino hoberik ez baita munduan nehun,
“Libro edo esklabo, bizi edo hil, bethi izan gaiten Eskualdun!”.

Arrangura hori ere sendi da *Manechunek*, apezgai lagunek egin harrera aipatzean, aitortzen duelarik “bihozmina”, bigarren zenbakian, badirela guti batzuek, bat edo biga omen, berrogeita hamarretarik, Euskal herriaz eta euskaraz “fuititzen” direnak.

Bakar horiek dituzke oraino gogoan, Testamentu Zaharreko profetak des-terrutik bota zuen deiadar saminaren hitzak, larri-larria, “Gure Chokhoa”-ren lerro tartean sartzen dituen kazetari gazteak:

“Ahanztean herria,
“Ihar bekit mihia!”.

ZERTAZ KAZETA BERRIA

Ohartzen gara orduan beren xedea agertuz geroz gure kazetariak badakitelatela ere beren egitasmoaren zehazten. *Patchiku* adiskideak adierazten digu hastetik “Zer izanen den” astekari berria: Apezgaiek eskuratzen ahal ez duten Baionako Manex Hiriart-Urruty-ren “Eskualdun Ona” dute behar ordezkatu. Astekari horrek bezala, “Gure Chokhoa”-k izanen du bere Lehen artikulua, *Piarreño*-k egina; gero Asteko berriak, larri-larria, *Begnatek* bildu nahi ditu; Zer eta zer titulupean, herri eta hirietako berri xeheak emanen dira; zenbait *zuhur-hitz*; *kobla zahar edo berri* batzuek; eta azkenik, *zenbait irri-solas*,

frantsesezko *tribuna libre*a, azken orduko berriak eta xokoen betetzeko *errekla*ma apur batzuek.

Onar dezagun egitasmo hori ongi bete zutela Nay-eko apezgaiek, *Piarre-ñ*o-ren Lehen artikulutik hasi-eta, “*pilules Pink*” “*Pastilles Brachet*” eta “*Izarr*a” edariaren erreklametaraino.

Hiriart-Urrutyk bezain ongi inarrosten zituen *Piarre-ñ*ok elizaren “serora onak” Frantziatik desterratu nahi zituzten politikari tzarrak, bai eta bipiltzen, bederazka, Donapaleuko Léon Pradet-Balade deputatua (1863-1931), Baionako Jules Legrand deputatu Paristarra (1857-1928), bai eta ere euskal familia oneko seme zen abokat gaztea, Joseph Garat (1872-1944) Baionako deputatu eta auzapez-gaia, “hel goseak” jana eta makila bi buruetarik atxiki nahiak hartua, sendi zuena.

Hitzeman bezala, *Begn*at-ek biltzen zituen, astetik astera, Frantziako, Rusiako, Chinako, Italiako, Venezuelako, Dahomeyko, Rusiako, Canadako edo New Yorkeko berri larrienak. Eskual herriaren berri xeheak heldu ziren Iparraldeko lau xokoetarik, kostaldetik bezala, Garazitik, Amikuzetik edo Zibero gaitetik. Elkarrizketa bat eta “*La Frontière*” Baionako kazeta “gorriaren” pasarte bat aurki genezakeen, bestalde, apezgaiez trufatzen zen bezala, erdara garbian jarria, gehigarri gisa.

AZKENA

Ororen buru, aitortu behar dugu hala ere, zenbait puntu ahul edo itusi aurkitu dizkiogula laster apeztera zohazen apezgai gazte haien lanari:

Lehenik baziren lagun biarnesen eta orokorki kaskoin guztien aurka igorri sistako gaizto zenbait, ezin onetsiak.

Bestalde oraino, euskal “loretegietarik” hautatu “erran-zuhur” batzuei jasanezinezko itxura kausitzen diegu gaurregun, hala nola, erran-zahar honi: “zakurrari emaiok hezurra eta emazteari gezurra”.

Eta azkenekotz “Gure Chokhoa”-ren bost ale horietan aurkitzen diren kobla zahar ala berriez, hots Madalena Larralderen ohoretan Diharassary erroter famatuak ontu bertso ezagunez eta Elissalde Azkaindar apezgaiak bere gisara kantu berriez baliteke zer erran eta zer alda, historiaren aldetik edo etikaren ikuspegitik.

Ez dugu uste oker horien gatik geldiarazi zutela hain laster, kazeta egileek berek, edo haien buruzagiek, 1907ko euskal astekari berria, nahiz horretaz deus segurik ez dakigun.

Dena den, iduritzen zaigu historia labur eta apur honek merezi zuela aipaldi xume bat egitea eta horra egina.